

ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOARI BURUZKO POLITIKA

Osakidetzako BARRUALDE-GALDAKAO Erakunde Sanitario Integratuak (ESIak) erronka hauei erantzunez zehaztu du bere erantzukizun sozial korporatiboari buruzko politika: gardentasuna, gobernu ona eta jasangarritasuna. Jasangarritasuna, era berean, hiru zutabeon ikuspuntutik aztertuta: ekonomia, ingurumena eta gizartea.

Erantzukizun sozial korporatiboa Barrualde-Galdakao ESIko xedea, ikuspegia eta balioaren alde intrintsekoaren parte da. Era berean, bere Plan Estrategikoan oinarri estrategikoen artean jasota dago, osasun sistemaren jasangarritasuna bermatzeko. Xedetik "gure herritarren osasuna kalitatez, segurtasunez eta jasangarritasunez hobetzeko lan egiten dugu", "gizartearekiko konpromisoan" oinarrituta, eusten dion balioetat hartuta. Erakundeak osasun jarduera horrelaxe bideratzen du: osasunaren eta gaixotasunaren prebentzioaren sustapena egiten du, komunitatearekiko elkarlana bultzatuz, osasun arloko gainerako agenteekin lan eginez, sistemaren jasangarritasuna bilatuz, eskuragarritasuna bermatuz eta gardentasuna sustatuz.

1. XEDEA

Erantzukizun sozial korporatiboari buruzko politikaren xedea hau da: **gizarte ikuspegitik arduratsua den kudeaketa** egiteko jarduerako oinarrizko printzipioak ezartzea.

2. IRISMENA

Erantzukizun sozial korporatiboari buruzko politika Barrualde-Galdakao ESIa osatzen duten zentro guztietan ezarriko da.

3. OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Barrualde-Galdakao ESIak ingurumena hobetzeko konpromisoa hartu du, eta kudeaketa arduratsua lortzeko gaitasunak garatuko ditu. Horrez gain, politika horren bidez mekanismoak eta oinarrizko printzipioak ezarriko ditu **interes taldeetarako jasangarriak izango diren balioak sortzeko**, batetik, gizarte eta ingurumenari lotutako alderdiak sustatuz, eta, bestetik, Erakundearen erabaki guztietan eraginkortasuna bilatuz.

Lerro horiek praktikan jartzea lortzeko, Barrualde-Galdakao ESIak oinarrizko printzipio hauek kontuan hartuko ditu jarduteko:

1. Konpromisoa hartzen du Kode etikoa sustatu eta betetzeko. Kode etikoak hauek ezartzen ditu, gardentasunez eta modu publikoan: lankide guztiek euren jardutea egitean izan beharreko jokabideen printzipioak eta arauak.
2. Erosketa publiko arduratsua sustatzea, kontratazio klausulak barne, irizpide etiko, eta lan, gizarte eta ingurumen arlokoak kontuan hartuta.
3. Nazio Batuen mundu mailako printzipioak integratzen laguntzea, baita **naizioarteko bestelako tresnak**, hala nola giza eskubide, lan-arau, eta ingurumenari lotutakoak ere, horiek erabiliz eta hedatuz.

4. Erakundeak bere inguruan sortzen duen **ingurumen-eragina murriztea**, kudeaketa sistema aitortuetan oinarritutako ingurumen-politikak garatuz.
5. **Lan-giro seguru eta osasungarri** baten alde egitea, kudeaketa-sistema aitortuetan oinarritutako lan arriskuen prebentziorako politikak garatuz.
6. **Ikerketa, garapena eta berrikuntza** (I+G+B) jarduerak sustatzea. Horretarako, horien ardatz hauek kontuan hartuko dira: baliabideen garapen jasangarria eta kudeaketa eraginkorra, inguruneko gizarte eta ekonomia garapena lagunduko dutenak.
7. Garapen jasangarria laguntzea, **produktuen eta zerbitzuen kontsumo arduratsuaren aldeko sentsibilizazioaren** bidez.
8. **Komunikazio bideak** eta **elkarrizketak** hauekin bultzatzea: profesional, bezero, hornitzaile, eta, oro har, gure **interes-talde** guztiekin. Helburua: horien motibazioa eta itxaropenak ezagutzea, baita Erakundeak horiengan sortzen duen **eragina** ere, Erakundearen balioen eta **gizartearen itxaropenaren** arteko **sintonia** lortzeko.
9. Erakundeak **kanpoan duen ospea eta izena** hobetzen laguntzea.
10. Erakundearen egiten diren jardueren buruzko informazio nabarmena eta egiazkoa zabaltzea urtero. Informazio hori **kanpoko egiaztatze-prozesuek** aztertuko dute, fidagarritasuna bermatzeko eta etengabeko hobekuntza pizteko.

4. JARRAIPENA

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren lantaldea barruko taldea da, eta horretan Zuzendaritza Taldea ere ordezkaturik dago. Lantaldearen helburua: **erantzukizun sozialaren garapena Erakundearen sustatzea**.

Besteak beste, eginkizun hauek ditu: jasangarritasunari lotutako txostenak idazteko koordinazioa, erantzukizun soziala duten egitasmoak adostea, erantzukizun sozial korporatiboari buruzko jardunaldiak antolatzea eta politika horren oinarritzko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea.




Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAO ESI
OSI BARRUALDE-GALDAKAO
ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE

Izpta.: Jon Guajardo Remacha
Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea
2017ko ekaina